

The Social Tech Times

Bataszkaria Babeko Teknologia Lortzearen alde



www.gatazkarikbabekoteknologia.org



Alboan

Jeinek buruztinako Fundazioa

001 Zb.

→ ZEURE MUGIKORRAK EKUTATZEN DUENA



Kongoko ekialdeko drama humanitaria

Talde armatuek kontrolatzen dituzte teknologia berrientzat ezinbestekoak diren «odolezko mineralen» usiaketa, prozesamendua eta salmenta


Kongoko Errepublika Demokratikoa, batez ere herrialdearen ekialdea, munduko meatzaritza-gune garantzi-suenetako bat da. Han dago koltanaren munduko erreserben % 80; mineral hori gabe, ezinezkoa izango zen teknologia berrien iraultza, bereziki teknologia mugikorrarena. Ez gara ari pantailerako kristalaz edo aluminioaz, ez eta kartasetako plastikoaz ere; ezkutuan dauden elementuez ari gara, gure mugikor, tableta eta ordenagailuen bihotzean ezkutatuta dauden elementuez.

Koltanaz gain (tantraloa erazten da hartatik), alpagarriak dira, batez ere, funtsezko zereginak betetzen dituzten beste hiru mineral: urrea, wolframa eta ertaina. Wolframak eragiten du gure mugikorrekin bitrazioa egitea, tantaloak elektrizitatea metatzen du, eta ertaina zirkuituak

soldatzeko erabiltzen da. Azkenik, urreak kableak estatzen ditu. Mineral horiek urriak eta garestiak dira, eta 'gatazka-mineralak' edo, are gordinago, 'odolezko mineralak' deitzen zaie. Haien erauzketa, prozesamendua eta salmenta talde armatuek kontrolatzen dute, eta invernurik okerrera bilakatu dute Kongo. Izan ere, bost milioi lagun baino gehiago hil dira 1998tik; 2013an bakarrik, milioi bat lagun lekualdatu dira; eta bortxaketa erabiltzen dute gerra-arma gisa: Enough Projecten arabera, urterik okerrerenan, urtean ehun mila emakume baino gehiago bortxatu dituzte.

Mineral horien usiapenetik eta legegaren aurkako trafikotik eskuratzeko dute dirua arma gehiago erosteko erabiltzen dute tokiko talde armatuek. Bigarren Mundu Gerraz geroztik izan den gatazka odoltsuenari iramunazte-

ko, Aberastasu natural ugari izan arren, Kongoko Errepublika Nazio Batuen Giza Garapenaren Indizean azken tokian dago. Meategietako dimamiket azaltzen dute neurri handi batean paradoxa hau, eta milioika pertsonaren sufrimendua azalaztzen dute.



La-ia esklabutza baldintzetan egiten dute meatzeko lana.

«Odolez zikindutako» mineral horiek iristen dira gure eskuetara gure mugikorrean ezkutatuta. Horretaz oso jakitun izan gabe ere, meatzeean hainbeste jende explotatzen jarraitzea eta gatazketan esku hartzen duten talde armatuei eustea finantzatzen laguntzen dugu.

Mugikorrak erabiltzeari uko egite-

ko asmorik eduki ez arren eta gailu elektronikoez komunikazioaren gizarrean ekartzen dizkiguten onurak alde batera utzi gabe, gizarte zibilak eskatzen du mineral horiek baldintza duinetan eraztea, giza eskubideak errespetatuz, eta ez daitezela erabili gerrak finantzatzeko eta gatazkek

betikotzeko.